

## NEURE BIZITZAKO IZPI BAKAN BATZUK

### 1. Umetasuna

Mundura etorri nintzen, Markinan, 1961eko martxoaren 22an. Gurasoak guztiz euskaldunak izan ditut, euskaldun hutsak. Aita Etxano baserrikoa, Berriatuko Asterrika auzokoa; ama, Markinako kalekoa. Aitaren hizkuntza ia bakarra euskara zen. Ama kalekoa izanik eta kaleko etxeko tabernan zerbitzari ibiltzea tokatu zitzaion gaztetatik, eta aita baino hobeto moldatzen zen erdaraz egin behar zenetan. Nik gurasoei beti euskara entzun diet. Kanpotarren batekin edo hitz egin beharra zenean bakarrik hitz egiten zuten erdara. Markinako kalean, parte zaharrean, etorri nintzen mundura etxerik zaharrenetarikoa batean, Antxia torre-etxean. Markinar peto-pettoa naiz, beraz, jaiotzez eta bizitzez, Goiko Portaleko iturria bezain markinarra.

Eskolara hasi nintzen sei bat urte nituela edo lehentxoago. Uste dut gaur egun askoz lehenago hasten direla eskolara. Neure lehenengo eskola, lehen letrak ikasteko ahaleginak Markinako kontzejupean izan zen. Neure lehenengo irakaslea andereño Garbiñe izan zen. Eskolan, orduan, bata bat eramaten genuen jantzita, zuri-urdina, belaunetarainokoa. Uste dut bata hori eskolara sartu eta bertatik janzten genuela, horman zeuden kako banakakoetan esekita edukitzen genuen. Hori zen gure eskolako uniformea. Praka laburrak edukiz gero, bata jantzirik eramaten genuenean, soineko baten tankeran gelditzen zitzaizgun uniformea: gonadunak bagina bezala. Gure ikastolak leku gehiago ere izan zituen. Akorduan dut urte erdi edo urte bat gehienez, Puritaren etxean egoten ginela, etxeko saloian ma-



*Bere amarekin (ca. 2003)*

haiaren bueltan. Umeak ginen eta atsedenaldiko ordua zenean mahaipera joaten ginen, etxeko saloitik irten gabe. Karmeldarren elizako saloi batean ere izan ginen eskolan, Mari Loli Aginagarekin (izena Maria Dolores du, baina Mari Loli esaten genion guk. Gaur uste dut *(Miren) Nekane* dela). Handik urte batera edo Markinako karmeldarren komentuko alderdi batean obrak egin zituzten eta ikastola berria izan genuen: Zerutxu. Orduko eskola gehienak edo guztiak euskaraz ziren. Akorduan ditut liburu batzuen izenak “Giza soina”, ipuin solteetan “Epotx triskaria”, “Xabiartxo”. Zerutxu ikastolatik Arretxinagara joan nintzen. Arretxinagan bi kurtso egin nituen. Orduko 5. eta 6. mailak. Arretxinagatik kaleko eskoletara, Frontoiaren ondoan dagoen eraikuntzako lehenengo pisura, gaur egun zaharren egoitza denera joan nintzen. Han EGBko 7. kurtsoa egin nuen, eta EGBko azken kurtsoa, 8. kurtsoa, kaleko eskola berrietan ikasi nuen Txoribentako eskola berrietan; gu izan ginen 1974. urtean eskola berriak estreinatu genituenak.

Ikastolan dena euskaraz egiten genuen eta kaleko eskoletan dena erdaraz. Maisu batzuk bertakoak, Markinakoak edo ingurukoak, izan arren euskararik ez genien inoiz entzun. Markinako alkatea eta semea izan zen on Luis Rodríguez Duraldek, esaterako, beti erdaraz egiten zigun. Arretxinagan geundela ere erdara hutsean ibiltzen ginen gehienetan. Arretxinagako gure maistra markinarra zen, euskalduna: Maritxu Aldape. Haren ahotik entzun nuen ia euskara bakarra baserritarren baten amarekin egiten zuen apurra zen. Euskararik inoiz entzun ez banion ere, uste dut –inori ezer kendu gabe– inoiz izan dudan maistrarik onena izan dela. Arretxinagako eskolara joan baino lehen, egunero-egunero, beraren etxe aurrean gelditzen ginen sei edo zazpi bat mutiko eta bera etxetik noiz irtengo zain egoten ginen berarekin batera, berrehun bat metroko ibilaldian, Arretxinagara joateko. Gure umetako sasoiari Maritxu Aldape ez zen inoiz bakarrik joaten eskolara, sei-zazpi mutikorekin lagunduta baino. Guri esaten zigunez, berak ez zituen nahi ikasletzat neskatilak, mutikoak baino.

## 2. Gaztetasuna

Ondarroara 13-14 urterekin joan nintzen. Ondarroara ikas-terera joatea beste mundu batera joatea bezalakoa izan zen hasieran. Umetan gure mundu bakarria Markinako kaleak eta inguruak ziren. Ibaibarrenetako haitzak, Parapettoa, Arretxinaga, Xemein. Futbolearen baina gehiago pilotan ibiltzen nintzen, Xemeingo frontoi txikietan. Ia sekula Markinatik irten gabe nengo –inoiz edo behin txango bat egin nuen Sukarrieta eta Bermeora eta beste behin Donostiara–; eta Ondarroara autobusean egunero lau osterata egiteak guztiz beste mundu bat ekarri zidan. Beste nire adineko batzuk ezagutzen zuten Ondarroa hondartzara umetan joaten zirelako gurasoekin. Ni behin edo beste joango nintzen, baina ez daukat akorduan.



(2014)

Ondarroan dena erdaraz ikasi nuen. Gai guztiak erdaraz. Ni zientzietatik joan nintzen matematika eta holakoak ulertzen eta ikasteko erraztasun handia nuelako. Ume-umetatik eduki dut matematikarako joera, grina eta maitasuna, eta ez nuen ulertzen besteei zaila begitantzea. Nik etorkizunean neure burua matematiko ikusten nuen. Aldi luze batean, gainera, matematikekin maitemindua egon nintzela uste dut. Ondarroakoa beste mundu bat izan zen. 1975-1978 urteak izan ziren. Franco bigarren urtean hil zen. Hilabeteak egiten genituen grebetan. Ondarroa, Lekeitio, Mutriku, Debako eta Mar-

kinako jendea batzen ginen institutuan. Denak edo gehienak euskaldunak. Debako gehienak erdaldun familietakoak ziren. Guk geure artean euskaraz egiten genuen. Orduan, garai hartan, euskaltzaletu nintzen. Dena erdaraz ikasi arren euskarazko liburuak irakurtzen hasi nintzen. *Euskaldunak* Orixerena eta Lizardiren *Biotz-begietan* izan ziran lehenengoetakoak, Mitxelenaren *Idazlan bautatuak* Patxi Altunaren edizioan hamasei urterekin irakurri nuen. *Mila euskal olerki eder* Santi Onaindiarena... Gogoan dut, esaterako, Jose Mari Iturralde (Jimuk) itandu zidala ia Mitxelenaren liburua ulertzen nuen... Institutuan hainbat liburu irakurri nituen euskaraz Satrustegiaren *Euskaldunen seksu-bideak*, esaterako, Txillardegiren *Oinarri bila* eta *Sustrai bila*... Liburu guztiak neure bototik irakurri nituen, inork agindu edo behartu gabe. Irakasleak ez zigun euskaraz irakurtzeko agintzen. *Peru Abarka* ere Azkueren erdal itzulpenarekin institutuan irakurri nuen. Axularren *Gero* eta Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* eta hainbat eta hainbat gehiago orduan irakurri nituen nik.

Institutuan nengoela *Pott* aldizkaria atera zuen gazte talde batek. Nik hamabost-hamasei urte izango nituen eta lehen aleak Joxe Mari Iturralde eskuratu zizkidan. Gogoan dut zirrara handia eragin zidan Iturralderen ipuin ezinago krudel bat: “Amodio amatiar bat”. Garai hartan hasi nintzen Bernardo Atxagaren ipuin eta testuetara zaletzen. *Obabakoak* liburua osatuko zuten testu asko aldizkarietan irakurri nituen lehenago.

### 3. Unibertsitatean

Nik institutu sasoian *Económicas* edo *Ciencias exactas* egiteko asmoa neukan. Azken orduan, ostera, Deustun sortu berria zen karrera batera apuntatu nintzen, Euskal Filologiara. Neuretzat euskal mundua izan zitekeen mundurik ederrena zela uste nuen, ia paradisu bakarra. Urteen joanean konturatu



*(2014)*

naiz ameslarietia izan nintzela, inozogia. Unibertsitatean, munduan legez, denetik aurkitzen duzu. Irakasleak aipatu beharko banitu, biziak alde batera utzirik, bi izan dira estimatuenak eta biak hilda daude: Gotzon Garate eta Santiago Segura. Nik irakasle bi hauengan, jakituriaz gainera, halako jauntasun eta munduan egoteko alaitasuna aurkitzen nuen. Unibertsitate sasoian nork ez du krisirik izan? Behin baino gehiagotan itaundu nion neure buruari ia bide egokia aukeratu nuen.

#### 4. Euskararen zaletasuna

Euskara kontuetan zaletasun bat baino gehiago izan ditut. Euskaraz klasikoak maite ditut, euskalki guztietakoak. Niretzat sermoi-liburuak irakurtzea ere, euskaraz badira, gozamen handia da. Idazle klasikoetan euskalki guztietakoak maite ditut. Gipuzkoakoekin, esaterako, asko gozatu dut zein Agirre As-teasukoarekin zein Lardizabalekin zein Larramendiren sermoiekin. Gipuzkoako euskara zoragarria Auspoako ehundaka liburutan ere irakurri dut. Iparraldeko euskarara ere grina eta etzantasun handia izan dut. Hango klasiko asko irakurri ditut lau lorietan.



(2014)

Ahozko euskarari beti euskaldun hutsetara hurbiltzeko grina izan dut. Neure burua entzule eta ikasle egin dut joan naizen leku guztietan. Pertsona zaharregandik entzundako berba, esapide eta istorioak paperean jaso eta etxean neure koaderno eta egunerokoetan jasotzeko ahalegina ere egin dut. Eguneroko bat ere osatu nuen etxean gurasoei entzuten nizekien berba eta esaerekin. Eguneroko horren izena *De rebus euscarae memorabilibus* zen.

Ikerketa egiteko orduan ahozko generoak izan ditut batez ere ikergai. Kopia zaharrak, baladak, esaera zaharrak, lo-kantak. Bilketa lanak egiten hasi nintzen garaian, orain dela hogeita bost urte baino gehiago, lo-kantak eta ipuinak biltzen hasi nintzen. Hirurehun orrialdeko lo-kanta liburu bat ere idatzi nuen, batez ere Bizkaia aldean bildutako sehaska-kantekin. Liburu hori ez nuen inoiz argitara eman. Liburu hori neure lehen lan luzea izan da. Bilketa horren arrazoia eta indarra F. Garcia Lorcak eman zidan. Poeta maite honek idatzi zuen bere saio zoragarri batean umeak jasotzen duen lehen poesia lo-kantetako delatza eta poesia horrek aparteko indarra zeukala; eta lo-kanten artean euskarazkoak apartekoak zirela zioen F. Garcia Lorcak. Ni orduan Bizkaiko hainbat herri eta auzotara joan nintzen eta lauorgeri urteko hainbat amonari inkestak egin nizkien lo-kanta bila.

Niretzat benetan hunkigarria da gure aitona-amonekin berba egitea. Beste mundu bat ezagutu dutela uste dut eta beste mundu hori euskaraz gatzatua dute, gu baino askoz euskaldunagoak direla uste dut: joan den mundu baten testigu dira. Gure gurasoen umetasunak eta gureak ez dauka zerikusirik.

*Jabier Kalzakorta*



## CURRICULUM VITAE

Izena: Jabier Kalzakorta Elorza  
Helbidea: Guenkale 7, 2.a, 48270 Markina  
NAN: 15366560-F  
Jaiotze-data: 1961-03-22  
kaltza@labayru.org

### Ikasketak

Filosofia eta Letretan lizentziaduna (Euskal Filologia), Deustuko Unibertsitatea, 1984, uztaila, Sobresaliente kalifikazioa.

Doktore-tesia amaitzear “Euskal baladen corpuserako edizino kritikoa” gaiaz.

### Lan-egoera gaur egun

Unibertsitateko irakaslea, Deustuko Unibertsitatean, 1994tik, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean, Euskal Filologia graduan, gai haue-  
tan: Ahozko literatura, Euskal literatura XVI-XIX mendeak, Euskal hiz-  
kuntza eta Hizkuntza modernoak.

### Lehenagoko jarduerak

1981-1988 Euskara irakasle Euskal Irakaslegoa, Deustuko Unibertsitatea

1986-1988 Itzulpen irakasle IVAPeko Itzulpen Eskola

1988-1989 Euskara-zuzentzaile Euskal Telebista

1990-1994 Hiztegitza Labayru Ikastegia

1991-1994 Itzulpen literario eta Itzulpengintza masterra, Deustuko Unibertsitatea

konparatuko irakasle

1996-1998 Itzulpen literarioko irakasle Itzulpengintza masterra, EHU Gasteiz

2007-2008 “La mitología vasca visto a través de sus principales personajes” ikasgaia irakatsi Asmoz eta Jakitez Fundazioak eraturako Etnografiako ikastaroan on line

2009 “La mitología vasca visto a través de sus principales personajes” ikasgaia irakatsi Barandiaran Fundazioak eraturako Etnografiako ikastaroan on line Barandiaran Fundazioa.

## **Ikerketa proiektuetan izandako parte hartzea**

*Sociedad y Cultura Vasca Contemporánea* (R 2004 eta R2008)

Deustuko Unibertsitatea

*Bizkailab “Bizkaiko Kultur Ondarea”* egitasmoan Bizkaiko euskal idazleen monografiaren ardura.

Deustuko Unibertsitatea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko egitasmoa

2012-2014

Ikertzaile nagusia: Rosa Miren Pagola eta Nerea Mujika

*Agosti Xaboren Kantutegiaren edizio kritikoa*

Euskaltzaindia. 2004-2009

Ikertzaile nagusia: Jabier Kalzakorta

*Discurso artístico e interculturalidad*

Deustuko Unibertsitatea

## **Argitalpenak**

Kalzakorta, J. “Balizko ametsaren historia”. *Idatz & Mintz*, 3-4 zk., 6-7 or., 1982

Kalzakorta, J. “Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren gainean”. *Idatz & Mintz*, 18-19 zenb., 35-42 or., 1989

Kalzakorta, J. “Herri ipuinen hasiera eta amaierako formulak”. In Zenbait egile: *Tradiziozko ipuingintza*, Gauontza Sorta, 2. Bilbao: Labayru Ikastegia, 9-32 or., 1989

Kalzakorta, J. “Sehaska kantak”. In Zenbait egile: *Ahozko literatura: genero txikiak*, Gauontza Sorta, 11. Bilbao: Labayru Ikastegia, 83-118 or., 1991

Kalzakorta, J. “Bizkaiko herri-ipuak idatziak”. *Euskera*, 37 zenb., 477-496 or., 1992-1

Kalzakorta, J. *Bizenta Mogel eta Elgezabal (1782-1854)*. Bidegi-leak 4. Vitoria-Gasteiz: Publizitate Zerbitzua. 1992

Kalzakorta, J. “Azkie gaztearen beste idazlan bat”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 6 zk. 91-97 or., 1993

Kalzakorta, J. “Bizkaiko ipuak baten ereduak”. In *II. Jardunaldiak Soziolinguistikaz. Bizkaiko euskera, bizkaiera?* Barrainkuako Udal Kultur Etxea, Bilbao, 307-316 or., 1993

Kalzakorta, J. “Hitzaurrea”. In Juan Manuel Etxebarria: *Gorbeia inguruko Etno-ipuak eta esaundak*, Laratz-2. Bilbao: Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, 15-77 or., 1995

Kalzakorta, J. “Tartaroak”. In *Euskera*, 1995-1, 40 zenb., 181-202 or., 1995

Kalzakorta, J. “*Acto para la Nochebuena* antzerkiaren zenbait pasarte”. *Enseiucarrean*, 12 zk., 117-127 or., 1996

Kalzakorta, J. “Euskal atsotitz-bildumak”. *Euskera*, 1996-3, 41 zenb., 611-640 or., 1996

Kalzakorta, J. *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua*. Bilbao: Labayru ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa. 1997

Kalzakorta, J. “Lapurdikoa eta Bizkaiko ipuak-eredu baten aldaera barriak”. *Idatz & Mintz*, 23 zenb., 24-27 or., 1997

Kalzakorta, J. “*Auspoako* ixtorio miragarriak”. *Idatz & Mintz*, 24 zenb., 16-18 or., 1997

Kalzakorta, J. “*Auspoa* irakurriaz”. *Idatz & Mintz*, 24 zenb., 24-26 or., 1997

Kalzakorta, J. “A fraseoloxía nos dictionarios euscaros. A lingua vasca”, *Actas do I Coloquio Galego de Fraseoloxía*. Santiago de Compostela: Centro Ramón Piñeiro, 183-192, 1997

Kalzakorta, J. “Euskarazko eguraldi-errefrauak”. *Enseiucarrean*, 13 zk., 93-139 or., 1997

Kalzakorta, J. “Alfonso Irigoienen poesiaz harripausu bat edo beste”. *Enseiucarrean*, 13 zk., 167-182 or., 1997

Kalzakorta, J. “Altuberen mendebaldeko errefrau bilduma bat”. *Mendebalde Kultur Alkartea. Jardunaldiak. Mendebaldeko euskara XX. mende goianean* (1. 1997) Bilbao: Mendebalde Kultur Elkarte, 45-78 or., 1997

Kalzakorta, J. “Historia del refranero vasco”. *Paremia*, 6 zenb. 141-146 or., 1997

Kalzakorta, J. “Bertso-paper zahar batez hitz bat edo beste”. *Idatz & Mintz*, 25 zenb., 41-46 or., 1998

Kalzakorta, J. “Adrien de Souhi-ren Zuberoako papaitak”. *Karmel*, 1998-1, 221 zenb., 53-57 or., 1998

Kalzakorta, J. “Ekidin delakoaren lehengusu eta izterlehengusuez”. *Karmel*, 1998-3, 223 zenb., 143-154 or., 1998

Kalzakorta, J. “Peru Okerra eta beste, Pedro Egañak kontatuak”. *Studia Philologica in honorem Alfonso Irigoien*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 275-300 or., 1998

Kalzakorta, J. In Julia Sevilla, Jesús Cantera (coord.). *877 refranes españoles con su correspondencia catalana, gallega, vasca, francesa e inglesa*. Madrid: Eiunsa, 1999

Kalzakorta, J. *Errose Bustintza* (1899-1953). Bidegileak 15. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 1999

Kalzakorta, J. *Alfonso Irigoien* (1929-1996). Bidegileak 15. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 1999

Kalzakorta, J. “Lekeitioko arrantzaleen biziera eta kanten gainean”. *Idatz & Mintz*, 27 zenb., 29-43 or., 1999

Kalzakorta, J. “Neska-mutilen arteko haserreak”. *Idatz & Mintz*, 28 zenb., 17-19 or., 1999

Kalzakorta, J. “*Alabaren heriotza*-ren aldaera berri bat”. *Idatz & Mintz*, 29 zenb., 1999, 16-23 or., 1999

Kalzakorta, J. “Los animales en el imaginario vasco”. *Actas do 1º Encontro Sobre Cultura Popular* (Homenagem ao Prof. Doutor Manuel Viegas Guerreiro). Universidade dos Açores–Ponta Delgada, 197-226 or., 1999

Kalzakorta, J. “Neskazahar baten penak bertsotan”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 7 zk. 189-204 or., 1999

Kalzakorta, J. “Larrabetzun (Bizkaia) bildutako ipuin-sorta bat”. *Etniker*, 11 zk., 165-186 or., 1999

Kalzakorta, J. “Gabon-kanta zahar baten aldaerak”. *Enseiucarean*, 13 zk., 131-142 or., 1999

Kalzakorta, J. “XIX. mendeko Gipuzkoako sermoi bat”. *Karmel*, 1999-2, 226 zenb., 86-96 or., 1999

Kalzakorta, J. “Mariano Izetaren lan-bildumaren berri laburra”. Mariano Izeta Elizalde: *Baztango kontuak*, Laratz-4. Bilbao: Labayru Ikastegia, 11-18 or., 1999

Kalzakorta, J. “Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak”. *Euskera*, 44 zenb., 129-205 or., 1999-1

Kalzakorta, J. “Laratzaren gaineko esaera zahar, igarkizun eta siniskerak”. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 73 zenb., 355-368 or., 1999

Kalzakorta, J. "Orozkoko ipuin-esaundak". *Anuario de Eusko-Folklore*, 41 zenb., 103-118 or., 1999

Kalzakorta, J. "Estructura de los refranes meteorológicos castellanos, franceses y vascos". *Paremia*, 8 zenb. (95-102 or.), 1999

Kalzakorta, J. "Bertso-paper baten aldaera politak". *Idatz & Mintz*, 30 zenb., 43-49 or., 2000

Kalzakorta, J. "Jean Etchepareren cantu dolorosac". *Karmel*, 2000-2, 230 zenb., 35-54 or., 2000

Kalzakorta, J. "Herri literaturako altxorrik handiena". *Antonio Zavalaren oboretan*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 127-158 or., 2000

Kalzakorta, J. "Zuberoako bi khantore edo baladen gainean". *Idatz & Mintz*, 31 zenb., 39-42 or., 2001

Kalzakorta, J. "*Senarraren seinaleak* baladaren aldaera berriak". *Idatz & Mintz*, 32 zenb., 23-35 or., 2001

Kalzakorta, J. "Arantzazuko baladen gainean". *Idatz & Mintz*, 33-34 zenb., 22-37 or., 2001

Kalzakorta, J. "*Txiki-txikitik* edo Salamancako kantaren gainean". *Enseiucarrean*, 16 zk., 21-29 or., 2001

Kalzakorta, J. "Esaera baten gainean". *Karmel*, 233 zenb., 59-63 or., 2001-1

Kalzakorta, J. "Euskal fraseologia: historia, oinarriak". *Euskera*, 46 zenb., 73-87 or., 2001-1

Kalzakorta, J. "*Jaun de Flores* baladaren gainean". *Idatz & Mintz*, 35 zenb., 17-29 or., 2002

Kalzakorta, J. "Donostiako hiru damatxo kantaren gainean" *Euskalingua*, 1 zenb., Bilbao: Mendebalde Kultur Elkarte 80-85 or., 2002

Kalzakorta, J. "Santa Ageda koplén gerra aurreko txapelketak". *Karmel*, 239 zenb., 3-26 or., 2002-3

Kalzakorta, J. “Gregorio Arrueren *Peru Abarkaren* itzulpena”. *Euskera*, 47 zenb., 425-438 or., 2002-2

Kalzakorta, J. “Bilbaoren oihartzuna herri literaturan”. In *Bilbao, el espacio lingüístico: Simposio 700 aniversario = Bilboren 700. urteurrena, Hizkuntza guinea: Sinposioa*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 163-185 or., 2002

Kalzakorta, J. In Adolfo Arejita (zuz.). *Labayru Hiztegia (Bizkaiera eta Batua (b)uztarturik)*. Bilbao: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa. Idazketa taldeko kide. 2003

Kalzakorta, J. “*Neska ontziratua* baladaren eredu zahar-berriak”. *Idatz & Mintz*, 36 zenb., 15-47 or., 2003

Kalzakorta, J. “Bereterretxen khantorearen gainean berriz ere”. *Idatz & Mintz*, 37 zenb., 10-35 or., 2003

Kalzakorta, J. “Lojibarreko alhabaren khantorea”. *Idatz & Mintz*, 37 zenb., 37-39 or., 2003

Kalzakorta, J. “*Sesenta y tres creencias populares recogidas por Jean Elissalde (1883-961)*”. *Etniker*, 12 zk., 225-253 or., 2003

Kalzakorta, J. “Bertsu jarrietatik ahozkoa (Urkabe-bertsok euskaraz: estudiante gaztearenak eta beste” *Mendebalde Kultur Alkartea. Jardunaldiak. Abozkotasuna aztergai* 7, 11-37 or., 2003

Kalzakorta, J. “Txillardegiren euskal lanez” *Mendebalde Kultur Alkartea. Jardunaldiak. Abozkotasuna aztergai* 7, 201-208 or., 2003

Kalzakorta, J. “Erronda kantuak eta eske-bertsok”. *Euskera*, 48 zenb., 109-163 or., 2003-1

Kalzakorta, J. “*Arrosa Xuriaren azpian* baladaren gainean. Xahoren bi ereduak”. *Idatz & Mintz*, 38 zenb., 26-37 or., 2004

Kalzakorta, J. “*Jaun Zuriano* baladaren aldaera zahar-berri bat”. *Idatz & Mintz*, 39 zenb., 19-32 or., 2004

Kalzakorta, J. “*Begi belch bati* olerki zoragarria Vilinch-ena ote?”. *Idatz & Mintz*, 39 zenb., 33-42 or., 2004

Kalzakorta, J. “Una colección antigua de coplas vizcaínas”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 9 zk. 9-63 or., 2004

Kalzakorta, J. “Humboldt-ek bildu zituen euskal kanta eta esae-  
ren gainean”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 9 zk. 119-  
132 or., 2004

Kalzakorta, J. “Notas acerca del personaje Betiri Sants”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 9 zk. 187-231 or., 2004

Kalzakorta, J. “Euskaldun zaharren gorantzan berbatxo bi”. *Mendebalde Kultur Alkartea. Jardunaldiak. Egokitasuna bizkuntzaren erabileran*. 8, 169-174 or., 2004

Kalzakorta, J. “Verso barriac Ambotoco Peru eta Antoni jarriac sortaren gainean hitz bi”. *Karmel*, 245 zenb., 3-22 or., 2004-1

Kalzakorta, J. “Aita Emiliano Barandiaranen eskuidatziak: Atsotit-  
tzak eta esapideak”. *Karmel*, 246 zenb., 176-196 or., 2004-2

Kalzakorta, J. “Balbino Garita-Onandiaren *Doniel gaba*”. *Idatz & Mintz*, 40 zenb., 3-13 or., 2005

Kalzakorta, J. “Borthirigarai edo *Apez Beltzaren k(h)antorea*”. *Idatz & Mintz*, 40 zenb., 19-36 or., 2005

Kalzakorta, J. “*Uretako jaun* edo *Zalduko jaunaren balada*”. *Idatz & Mintz*, 41 zenb., 20-33 or., 2005

Kalzakorta, J. “Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue: sus notas de campo en Zeanuri, en febrero de 1932”. *Etniker*, 14 zk., 217-258 or., 2005

Kalzakorta, J. “Gotzon Garateren gorantzan”. *Mendebalde Kultur Alkartea. Jardunaldiak. Euskera zientifiko-teknikoa normalizazino-  
tik homologazinora*. 9, 507-512 or., 2005

Kalzakorta, J. “Bitoriako batailako testigantza edo frantsesearen bukaerako koplak batzuen gainean”. *Karmel*, 249 zenb., 19-28 or., 2005-1

Kalzakorta, J. “Hiru sasibalada baxenabartar”. *Idatz & Mintz*, 42 zenb., 23-38 or., 2006



Kalzakorta, J. “William Rollo eta The Basque Dialect of Marquina”. In William Rollo: *The Basque Dialect of Marquina*. Bilbao: Labayru ikastegia, 1-34 or., 2006

Kalzakorta, J. “Pedro d’Agerre Azpilikueta Axular (1556-1644)”. *Gueroco guero*. Bilbao: Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, VII-XII or., 2006

Kalzakorta, J. *Dantzakopla zaharrak*. Bilbao: Laratz Ahozko literaturen bilduma-6. Labayru ikastegia-Bilbao Bizkaia kutxa. 2007

Kalzakorta, J.; Elustondo, M.A.; Zabaleta, J. *Abrite portas*. Ikastolen elkarte. 2007

Kalzakorta, J. “*Buruilaren ondarra* edo *Lertsunak lerro-lerro* amodiozko kanta”. *Idatz & Mintz*, 43 zenb., 16-25 or., 2007

Kalzakorta, J. “*Mutil gazte bilbo hollia* edo *Musde Urrutiaren* kantuaren aldaera berriak”. *Idatz & Mintz*, 44 zenb., 20-35 or., 2007

Kalzakorta, J. “Pierre Topet Etchahunen gainean zenbait iritzi” Mendebalde Kultur Alkartea. Jardunaldiak. *Mendebaldeak badu ekialdea: Zuberoa: hizkuntza, literatura eta etorkizuna*. 11, 231-251 or., 2007

Kalzakorta, J.; Pedrosa, J.M.; Astigarraga, A. *Gilgamesh, Prometeo, Ulises y san Martín/ Mitología vasca y mitología comparada*. Atun: José Miguel de Barandiarán Fundazioa. 2008

Kalzakorta, J. “*Ontziak eder du bela* edo *Itsasu Elizaldeko balada*. Bi aldaera berri argitaragabeak”. *Idatz & Mintz*, 45 zenb., 26-36 or., 2008

Kalzakorta, J. “*Ortziraletan duzu Garruzen merkatu* kantaren aldaera berriak”. *Idatz & Mintz*, 46 zenb., 26-36 or., 2008

Kalzakorta, J. “Notas sobre el texto vasco de *Urthubiako albaba*”. *Anuario Del Seminario de Filología Vasca “Julio De Urquijo”*. XLII-1, 61-81 or., 2008

Kalzakorta, J. “Tradiziozko dantza-kopla zaharrak”. *Inpernuko poza: Trikitixaren Jardunaldiak*. Zarautz: Euskal Herriko Trikitixa Elkarte, 21-45 or., 2008

Kalzakorta, J. “Tendencias actuales de la investigación paremiológica vasca”. *Estudios paremiológicos I. La investigación paremiológica en España*. Editorial Ta kalós keimena, Serie El jardín de las Hespérides nº 2, 2008

Kalzakorta, J. “Txinako literatura eta euskal ipuinak”. *Hermes, revista de pensamiento e historia*. 27 zenb., 2008

Kalzakorta, J. “Dantza kopleen barruan zer ote dago?”. *Administrazioa euskaraz*, 61 zenb., 48-49 or., 2008

Kalzakorta, J.; Etxebarria, I. *Herri literatura*. Euskara mintzagai-5. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila. 2009

Kalzakorta, J. “*Andereño bat ikbusi nuen eta Intxauspeko albaba dendaria*”. *Idatz & Mintz*, 47 zenb., 11-23 or., 2009

Kalzakorta, J. “Etxahunen *Ofizialenak* khantorearen bost ahapaldi gehiago”. *Idatz & Mintz*, 48 zenb., 24-29 or., 2009

Kalzakorta, J. “Frantsesetako euskal bertso zahar-berriak: Maiatzaren bikoak eta abar”. *Karmel*, 265 zenb., 49-70 or., 2009

Kalzakorta, J. “Gotzon Garate euskalari eta idazle”. *Karmel*, 265 zenb., 39-48 or., 2009-1

Kalzakorta, J. “Berbaurre modura”. In Luis Baraiazarra Txertudi: *Nire sasoiko Markina-Xemein*. Markina-Xemein: Markina-Xemeingo Udala, 11-18 or., 2009

Kalzakorta, J. “Errose Bustintza ipuin-idazle: hurreratze modu bat”. In Errose Bustintza *Mañariko: Ipuinik ipuin Mañarian gora*. Bilbao: Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, 11-40 or., 2009

Kalzakorta, J. “Añibarroren errefrau bilduma polit bat”. *Idatz & Mintz*, 49 zenb., 54-66 or., 2010

Kalzakorta, J. “Etxahunen khantore argitaragabe bat. *Amorusa gaztia*”. *Idatz & Mintz*, 50 zenb., 48-51 or., 2010

Kalzakorta, J. “Antonio Zavalaren onetan eta ohoretan”. *Deia*, 2010ko otsailaren 23a., 2010

Kalzakorta, J. “La canción arthizarra goizetan”. *Juan Mari Lekuonari Omenaldia*, Iker-23. Bilbao: Euskaltzaindia, 231-294 or., 2010

Kalzakorta, J. “1721. urteko Eibarko kopla zaharrak”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 11 zk. 11-33 or., 2010

Kalzakorta, J. “Mendiak bethe belharrez amodiozko kantuaren gainean”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 11 zk. 863-94 or., 2010

Kalzakorta, J. “Etxahunen Arengaraiko primarenkhantoria-ren ahapaldi berriak”. *Karmel*, 2010-1, 269 zenb., 22-39 or., 2010

Kalzakorta, J. “Ibarguen-Katxopinen kronika eta gaurko tradizioa”. *Oihenari: cuadernos de lengua y literatura*. 25 zenb. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza., 2010

Kalzakorta, J. “Acerca del leer, del escribir y del arco iris / Irakurtzea, idaztea eta ortzadarra”. *Photo berriak*, 1 zk., 43-47 or., Photomuseum Zarautz, 2010

Kalzakorta, J. “Peru Abarca Gaur”. *Forum bitzaldiak*. Bilbao: Bilbo Zaharra Liburuak-2, 33-53 or., 2010

Kalzakorta, J. “Altzaiko ‘Brodutzen ari nintzen’ baladagai berria”. *Idatz & Mintz*, 51 zk., 27-41or., 2011

Kalzakorta, J. “Andra Emili balada eredu desezagun bat eta Azkuek bildua”. *Idatz & Mintz*, 52 zk., 19-26 or., 2011

Kalzakorta, J. “Los refranes meteorológicos vascos: dos colecciones poco conocidas”. *I provervi meteorologici Ai confini dell’Europa romanza*. José Enrique Gargallo Gil, coordinatore (con la collaborazione di Maria-Reina Bastardas, Joan Fontana i Tous, Gabrielle Iannaccaro e Antonio Torres Torres). Alessandria: Edizioni dell’Orso, 15-33 or., 2011

Kalzakorta, J. “Jean Elissalderen Theophane Venard Dohatsua”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 1 zk. 11-59 or., 2011

Kalzakorta, J. “Antonia Gorostolaren “Nire amaren esaerak eta kantak”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 12 zk. 189-219 or., 2011

Kalzakorta, J. “Jean Etchepareren beste heriotza-kantore bi”. *Karmel*, 2011-2, 274 zenb., 849-68 or., 2011

Kalzakorta, J. “Jean Elissalderen *Alemanak*”. *Idatz & Mintz*, 53 zk., 20-26 or., 2012

Kalzakorta, J. “*Anderea gorarik* baladaren hiru eredu berri”. *Idatz & Mintz*, 53 zk., 27-38 or., 2012

Kalzakorta, J. “Balada gai biren ereduak *Plazan zer berri da? Eta Albarguntsa*”. *Idatz & Mintz*, 54 zk., 3-12 or., 2013

Kalzakorta, J. “Basoilarraren khantorea”. *Idatz & Mintz*, 54 zk., 26-33 or., 2013

Kalzakorta, J. “Azkuek bildutako mendebaldeko lau eske koplak sorta”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 13 zk. 53-74 or., 2013

Kalzakorta, J. “Una colección de coplas de baile de Ataun”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 13 zk. 75-86 or., 2013

Kalzakorta, J. “Neska ontziratua balada gaiaren eredu berri bat: Gotañeko eredu”. *Karmel*, 283 zk. 39-62 or., 2013.

Kalzakorta, J. “Bilboko urkatuaren kanta” *Bilbo inguruko ipuinak/ Cuentos alrededor de Bilbao*, 151-158 or., 2014.

Kalzakorta, J. “Mattin Etchamendy, Urruneko mendebalean artzain” *Erlea* 7, 2013, 86-88 or.

Kalzakorta, J. “Neska ontziratuaren eredu berri bat: Garaziko aladera” *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 14 zk. 11-49 or., 2014

Kalzakorta, J. “Gernikako kopladia, Julio Bareñoren koplak bilduma” *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 14 zk. 60-120 or., 2014

## Literatur itzulpenak

Pound, Ezra. *Cathay*. Bilbao: *Idatz & Mintz* aldizkariko separata. 1988

*Ekialdeko ipuin miresgarriak*. Bilbao: Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa. 1988

*Pu Songlingen ipuinak*. Bilbao: Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa. 1988

## Kongresuak

“Bizkaiko herri-ipuin idatziak”. *Herri literatura II jardunaldia: herri-narratiba*, Euskaltzaindia, Donostia, 1992.

“Tartaroak”. *Herri literatura III jardunaldia: abozkotasuna*, Euskaltzaindia, Oiartzun, 1994, Manuel Lekuonaren omenez.

“Euskal atsotitz-bildumak”. *Herri literatura IV Jardunaldiak: paremiologia*, Euskaltzaindia, Durango 1996.

“Historia del refranero vasco”. *I Congreso Internacional de Paremiología*, Dpto. Filología Italiana (UCM) y la revista *Paremia*, Universidad Complutense de Madrid, 1996

“Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak”. *Herri literatura V. Jardunaldia: herri-antzerkia*, Euskaltzaindia, Tolosa, 1998, Antonio Maria Labaienen omenez.

“Estructura y contenido de los refranes meteorológicos vascos”. *II Congreso Internacional de Paremiología*, Universidad de Córdoba 1998.

“Los animales en el imaginario vasco”. *1º Encontro Sobre Cultura Popular*, Universidade dos Açores-Ponta Delgada, 1999

“Euskal fraseologia: historia, oinarriak”. *Herri literatura VI Jardunaldiak: euskal fraseologia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000, Justo Maria Mokoroaren omenez.

“Erronda-kantuak eta eske-bertsoak”. *Herri Literatura VII Jardunaldiak: etno-kantu laburrak*, Euskaltzaindia, Eibar, 2002.

“Las coplas de cuetación en euskera”. *Lyra mínima oral. Los géneros breves de la literatura tradicional. Congreso Internacional*. Universidad de Alcalá de Henares, 1998

“Las traducciones parciales del Quijote al euskera”. *IV Centenario del Quijote* EHUko Udako jardunaldiak, Donostia, 2005.

“La fraseología en los diccionarios eúskaros”. *III Congreso Internacional de Fraseología y Paremiología*. Santiago de Compostela, 2006

“Tradiziozko dantza-kopla zaharrak”. *Inpernuko poza: Trikitixaren Jardunaldiak*. Euskal Herriko Trikitixa Elkarte, Donostia, 2008

“Estructura y contenido de los refranes meteorológicos vascos”. *Segundo Seminario internacional sobre refranes meteorológicos. En los linderos de la Europa romance*. Bartzelonako Unibertsitatea, 2010

## **Erakunde eta elkarteetan parte hartzea**

Euskaltzaindia: 1996ko maiatzaren 31an *Euskaltzain urgazle* izendatua.

Euskaltzaindia: *Herri literatura batzordeko* kidea 1996 urteaz ge-roztik eta Euskaltzain osoa eta Herri literatura batzordeko burua 2014 urtean.

Mendebalde Kultura Elkarte: sortzailea eta kidea 1996 urtetik aurrera.

*Cuadernos de Fraseología Galega*: aldizkariko erredakzio konseiluko kidea.

*Idatz & Mintz*: aldizkariko Idazkaritza batzordeko kidea.

*Litterae Vasconicae Euskeraren Iker Atalak*: aldizkariko Idazkaritza kidea.

*Instituto Cervantes*: erakundeko *Refranero Multilingüe* proiektuko euskal ordezkaria. Euskal paremia ordainen sailaren arduraduna 2000 urtetik aurrera.

*Auspoa liburutegia*: lan taldekoa, Pello Esnal eta Joxemari Iriondorekin batera, 2009 urtarriletik aurrera.